



Betagarri

Bizitzari txistuka

KD-825

Pasa den mendearren erdialdean Jamaika uhartean jaiotako SKA musika beti izan da oso moldagarria. Hasieratik, garai eta musika joera berrietara egokitzeko ikaragarritzko ahalmena erakutsi du, eta horren eraginez kultura popularraren garapenean sekulako eragina izan duen ikusmolde oso bat ekarri du eboluzio musikarekin batera. Bizitzaren iragaitea interpretatzeko modu bizia bezain gozoa.

Ska, jende xumeen musika da, itxaropentsua eta alaia, amets egiteko eta dibertitzeko, bizitzaren borrokan ezinbesteko elikagaia. Kaletarra, nostalgikoa eta misteriotsua, identitate errotuak eta jarrera aurrerakoiak dituzten pertsonekin zein herriekin bereziki konektatzen du.

Jamaikatik Ingalaterrara 1970.ean arribatu, eta handik mundu osora zabaldu zen berehala. Euskal Herrian ere bere lekua topatu zuen; 1980ko hamarkadatik aurrera genero dantzagarri, sasi-dultze eta sasi-gordin horrek jarraitzaile eta talde ugari izan ditu gure artean. Horietatik, 1993. urtean Gasteizen sortu zen **BETAGARRI** taldea da aipagarrienetakoa.

Talde beteteranoa da BETAGARRI, orekatua eta sendoa. Betagarriren musika entzunda, ska-klub malenkoniatsuetako sentazioak gure barneko espazio animikoetan zehar zabaltzen dira, eta giroak berehala harrapatuko gaitu. Bestalde, talde aktiboa da; bere jarreraren zein eraginkortasunaren bidez, merkatua parez pare bereganatzen asmatu du, urtetik urtera publiko berriak gehituz, mugak eta herrialdeak gaindituz. Denboraren joanean eskaini dituen ehunka kontzertuetan (bederatziehunetik gora), eta argitaratu dituen bederatzi diskoetan, gero eta doinu freskoagoa lortzen du, aldioro mementoko ska musika gihartsua eta sentimentala eskainiz.

Bizitzari txistuka lanak azken errepertorioa biltzen du, azken bi urteetan taldean konposaturiko hamalau kantu mamitsu. Izenburuaren esanahiak adierazten duen joko bikoitzean laburbiltzen da taldeak musikarekiko eta bizitzarekiko azaltzen dituen jarrera eta konpromisoa: baikorra, alaia, sentimentala eta solidarioa, munduak eta pertsonak aurrera egin behar baitute.

Guztiok daukagu ilusioren bat, eta kanta berri hauek, harentzat eginiko musika dira. Amets eder baten sintonia beroa.



Betagarri

Bizitzari txistuka

KD-825



La música SKA, originada en Jamaica a finales de los 50, siempre se ha caracterizado por su gran capacidad de evolución, fusión y adaptación a los nuevos tiempos y tendencias musicales. De todo esto resulta que, más allá de un estilo musical, se trata de una cultura influyente que ha sabido revitalizarse a través de los más diversos lenguajes musicales y sociales.

El ska es música esperanzadora y alegre para gente humilde que añora divertirse y soñar, luchar y vivir, es música callejera, nostálgica y "misteriosa" que conecta especialmente en personas y pueblos con identidades enraizadas y actitudes progresistas.

Desde Jamaica desembarca en Inglaterra para expandirse desde aquí a todo el mundo, incluido Euskal Herria, donde este estilo, cálido y rudo a la vez siempre ha contado con numerosos seguidores y con muy buenas bandas, como es el caso de **BETAGARRI**, grupo de Vitoria nacido a comienzos del año 1993 cuya veteranía en la escena avala el éxito de su propuesta.

Betagarri es un club, un espacio musical cuya atmósfera atrapa. Su actitud y operatividad musical les ha abierto el mercado de par en par y han sabido sumar nuevos públicos, traspasar fronteras y evolucionar sonando siempre frescos y actuales a través de los años; tanto en los cientos de actuaciones (más de 900) ofrecidas como en los nueve discos publicados.

Bizitzari txistuka es el título de su último trabajo, donde en catorce nuevos temas propios, la banda destila su sabor más actual. El propio juego de palabras que nos ofrece el título "silbando a la vida / escupiendo a la vida", resume la actitud vital-musical de la banda, unas veces festiva, otras canalla, melancólica, a la vez que solidaria, manteniendo siempre una actitud positiva donde la necesidad de echar para adelante se convierte en algo predominante.

Todos tenemos una ilusión y estas nuevas canciones de BETAGARRI están especialmente hechas para ella. Una cálida sintonía para una sueño excitante.

